

KANTU HERRIKOIAK BARNETIK (AURRERATUA)

Irakaslea

THIERRY BISCARY, abeslaria eta ekoizlea. Kalakan taldean partaide izandakoa, 2002an Ipar Euskal Herriko eskoletan hasi zen musika ikastaldiak ematen Kristof Hiriart eta Lagunarte konpainiaren zuzendaritzapean. Lan horri esker ohartzen da transmisioaren garrantziaz. Besteek ikasi diotena erakasten hasten da: kantua, txalaparta, edo joaldunen teknikak. Orduz geroz, musika proiektuetan parte hartzen duelarik, mami artistikoari eta funtsezko zentzuari kasu berezi bat ematen dizkio. Unibertso ezberdin bezain aberasgarri horietan lan eginez, beti oinarrizko abiapuntura itzuliko da: musika herrikoa eta bereziki ahots hutsezko kantua, soila edo polifonikoa. 2018an bere lehen lana “*Manez eta Kobreak*” plazaratu ondoren, 2020an, bere bigarren albuma, *Muda*, argitaratu zuen. Bestalde musika eta kantu tailerrak Gipuzkoan eskaintzen ditu. Azkenik, *Kalapita* produkzioak enpresarekin, ekoizpen lanak egiten ditu Euskal Herriko beste artista batzuentzat.

Deskribapena eta helburuak

- Kantu herrikoiak ikasi eta interpretatu.
- Zergatik eta zertarako kantatzen dut. Kantu herrikoa nori, noiz eta nola eman.
- Kantaldi bat elkarren artean preparatu.
- Hastapeneko ikastaroan landutakoa sakondu.

Nori zuzendua

Kantariari zuzendua eta ikastaroaren hastapenean aritutakoak

Egitaraua

Parte hartzaileen helburuak eta nahikeriak zehaztu. Kantu herrikoiak kantatu
Parte hartzaileek ekarritako kantuak entzun, kantatu eta batzuk ikasi
Kantuen interpretazioa. Letren erran nahiak aipatu eta hitzekin nola jolasten ahal den
Kantugintza munduan zehar. Kantuak entzun eta ariketa batzuk egin
Non kantatzen dut. Kantuaren espazioak zehaztu eta espazio ezberdinetan kantatu
Nori kantatzen diot. Kantuen hautaketa zehaztu, ariketak eta jolasak
Kantu bat nola eginga da. Doinu bat nola inprobisatu, kantu bat sortu,
Kantaldi bat preparatu parte hartzaile bakoitzak ekarritako kantuekin

Data-ordutegia

I 23- III 27

Astelehena 19:00-21:00

Hizkuntza

Euskara

Oharra

- Matrikularen zenbatekoan ez da ikastaroko materiala sartzen, eta ikastaroa egin bitartean behar izan daitezkeen bestelako materialak ikastaroko ikasleek emango dituzte. Ikastaro batzuetan, Donostia Kulturak hasierako oinarrizko materiala jarri ahal izango du.